

**HONAKO HAUEN ARTEAN LANKIDETZA-HITZARMENA SINATZEKO
PROPOSAMENA:
LEGAZPIKO UDALA – GERDAU – SPRILUR – GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

BILDURIK Legazpin, 2015ekoren(e)an.

Alde batetik:

Jose Antonio JAINAGA GOMEZ jauna, zenbakidun NAN duena eta Marco PINEDA GOMEZ jauna, zenbakidun NAN duena. Lehenengoa 'Gerdau Aceros Especiales Europa SL' enpresako zuzendari nagusia eta zuzendari finantzarioa bigarrena. Aipatu enpresaren helbidea: Ugarte auzoa z/g – 48970 Basauri (Bizkaia).

Bestetik, Sagrario Etxabe Lasa anderea, .

Bestetik (SPRIko ordezkaria)

Bestetik (Aldundiko ordezkaria)

Modu berean, Legazpiko Udaleko behin-behineko idazkari Iñaki Gastañares Sanchez jaunak ere esku hartu du egintzaren fede emateko, gaikuntza nazionala duten Toki-administrazioko funtzionarioen erregimen juridikoari buruzko 1174/1987 Errege-dekretuan aurreikusitako funtzioak betez.

JARDULEAK:

Jainaga eta Pineda jaunak, 'GERDAU ACEROS ESPECIALES EUROPA SL' enpresaren izenean, joan den, notarioaren aurrean, protokolo-zenbakiarekin, emandako ahalorde-eskrituraren arabera. Aipatu enpresago Merkataritza-erregistroan dago inskribatuta. Parte-hartzaile biek ahalordea indarrean dagoela adierazi dute.

Etxabe Lasa andereak , Legazpiko Udalaren izenean, ekitaldi honetarako berariaz ahalmendua izan ondoren 2015-03-25eko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren arabera. Hitzarmenari erantsita doakio erabaki horren gainean emandako egiaztagiria.

Jauna,

Jauna,

AURREKARIAK

1- 'GERDAU ACEROS ESPECIALES EUROPA SL' enpresa (Gerdau aurrerantzean) 1. Eranskinean jasotako erregistro-zenbakiak dituzten ondoren zehazten diren finken jabe da, Legazpiko udalerrian:

1. Zona: Altzairutegia eta laminazioa: 94.360 m²
2. Zona: Altzairutegi eta laminazio esparruari laguntzeko gunea: 13.385 m²
3. Zona: Azpiestazioa: 34.595 m²

2- Gaur egun hitzarmen honetan helburu diren finka guztiak 1. Zonaldean daude multzokatuta eta haien hirigintza-kalifikazioa hiri-lurzoru industrialak da.

3- Legazpiko Udalak "Legazpiko Katalogatutako hiri-ondarea babesteko eta zaintzeko Plan Bereziaren Testu Bateratua" onartu zuen 2014ko abenduaren 18an (2015eko otsailaren 17ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena). Bertan, aipatu arean kokatutako eraikin industrialen katalogazio historiko-kulturalak jasotzen dira.

4- Hitzarmen honetan jardun direnak, hau da, Gerdau enpresak, Legazpiko Udalak, SPRILUR erakundeak eta Foru Aldundiak norbere xede sozialarekin zerikusia duten interesak dituzte. Horrela,

- Foru Aldundiak interesa du gizarte iraunkortasunaren (gizarte-kohesioa), iraunkortasun ekonomikoaren (berrikuntza eta lehiakortasuna) eta ingurumenaren iraunkortasunaren integrazioan oinarritutako sustapen ekonomikoaren politikan.
- GERDAU enpresak jarduera industrialak garatzean eta aberastasuna sortzean du interesa.
- Legazpiko Udalak bere lurraldea, ekonomia eta kultura arloan herritarrentzako onuragarriagoak diren irizpideen arabera antolatzean eta
- SPRILUR erakundeak, Eusko Jaurlaritzaren mendeko erakundea den aldetik, hirigintza-eremuan herrialdearen industria garatzean du interesa, beti ere, une bakoitzean indarrean dauden legeen eta araudien arabera.

Hortaz, eta indarrean dagoen hirigintza-araudia aintzat hartuta beti ere, garapen industrialak sustatzeko eta zonaldean enplegua sortzeko edo mantentzeko guztiok duten interesen arabera, hitzarmen hau sinatzea adostu dute, helburu nagusia honakoa izanez: Legazpiko udalerrian kokatzen den GERDAU enpresaren jabegoko 1. Zonaldearen optimizazioa bilatzea, azaldutako irizpideen arabera.

5- Nizh-Tagil gutunean (2003) industria-ondareari buruz jasotako jarraibideei dagokienez, honela dio hitzez hitz 5.5. atalak:

"Industria-eraikinak egokitzen eta erabiltzen jarraitzeak energia xahutzea saihesten du eta garapen iraunkorra sustatzen du. Ondare historikoak paper garrantzitsua joko dezake hondatuta dauden edo gainbehera doazen eremuetako ekonomia

biziberritzean. Berrerabiltzeak ekar dezakeen jarraipenak egonkortasun psikologikoa eman diezaieke urte askoan lan iturri izan denaren desagertzeari aurre egin behar dioten komunitateei.

6- Esandakoa aintzat hartuta eta Legazpiko Udalaren eta Foru Aldundiaren interes publikoek (hala nola, hirigintza edo lurralde-antolaketa sustatzea eta enplegua sortzea edo mantentzea) GERDAU enpresaren interes pribatuekin (hala nola, lanpostuak mantentzea eta etorkizunean aberastasuna sortzea ahalbidetuko duen jarduera industriala garatzea) bat egin behar dutela kontuan hartuta, komenigarritzat jo da SPRILUR erakunde publikoa izendatzea aipatu interes publikoak eta pribatuak eskura ditzan honako hitzarmena sinatuta: GERDAU ENPRESAK LEGAZPIKO INDUSTRIA GUNEAN DUEN EREMUA ANTOLATZEKO PROPOSAMEN BAT BILATZEKO LANKIDETZA-HITZARMENA.

KLAUSULAK

Lehenengoa: Alderdi guztien interesa da SPRILUR erakundeak Legazpiko udalerrian dagoen eta gaur egun GERDAU enpresak erabiltzen duen industria gunean jarduteko proposamena egin dezala, segidan zehazten diren oinarrien eta baldintzen arabera.

Bigarrena: Jarduteko proposamen horrek helburu bikoitza izango du:

- a) Legazpiko Udalean eta Euskal Herriko araubidean indarrean dauden hirigintza-arauei erantzuna ematea edo legez moldatzea.

Proiektuaren zatiren batek indarrean dagoen antolamendua aldatzea edo zehaztea ekarriko balu, jarduketa hori alderdi guztiei proposatuko zaie, etorkizunean bideragarritasun juridikoa izango duen behin-behineko proposamena egite aldera, haiek hartuko den neurria bideragarria den edo legez egokitzerik dagoen balora dezaten.

- b) Industria gunea baldintza hobereenetan berrerabiltzeko proposatuko den eraikuntza jarduketa errentagarri bihurtzeko interesa betetzea, errentagarritasun ekonomikoaren arloan, eraikinen erabilgarritasunaren bukaerako bolumenean eta industria aprobeixamenduetan.

Hirugarrena: SPRILUR erakundeak, alderdi guztien jarraibideak eta iradokizunak aintzat hartuta, honakoa egingo du:

- 1- Hitzarmena sinatuko den egunetik hilabeteko epean aurrekontu ekonomiko orientagarria osatuko du. Aurrekontu horretan GERDAU area aurreko klausulan azaldutako helburuetara egokitzeko egon daitezkeen hirigintza-aukera desberdinak jasoko lukeen azterketa egitea zenbat kostatuko litzatekeen jasoko da, hura egiteko lor litezkeen diru-laguntza publikoak barne hartuta.

GERDAU enpresak bere gain hartuko du SPRILUR erakundeak egingo duen aipatu azterketa egitearen gastua.

2- Aipatu area hirigintza-parametro egokietara egokitzeko Plan bat egingo du eta burutuko diren jarduketan egutegia edo kronograma aurkeztuko du. Modu berean, jarduketa horiek egiteak ekarriko lukeen gutxi gorabeherako kostua aurreikusiko du eta ondoriozko azalera erabilgarriak hirugarrenei merkaturatuz gero lor litezkeen diru-sarrerak aurreikusiko ditu.

Laugarrena: Azaldutako lanak koordinatzeko asmoarekin, alderdiek Jarraipen Batzorde bat osatzea aurreikusi dute. Batzorde hori 4 pertsonen osatuko lukete:

- a) Legazpiko Udaleko Alkateak edo honek izendatuko duen zinegotziak.
- b) SPRILUR erakundeko ordezkari batek
- c) GERDAU enpresako ordezkari batek
- d) Foru Aldundiko ordezkari batek

Batzordearen saio bakoitzean parte hartuko duen pertsona zehatza alderdi bakoitzak izendatuko du, bertan aztertuko diren gaien arabera. Modu berean, beste pertsona batzuk ere batzordean parte hartzera gonbidatu ahal izango dira, haien ekarpenek batzordearen funtzionamendua eta lana erraz dezaketela ikusiz gero.

Batzordea alderdietako edozeinek deituta bilduko da beharrezkotzat joko den bakoitzean.

Hauexek izango dira Batzordearen helburuak:

1- SPRILUR erakundeak proposatutako Jarduketa Planaren jarraipena koordinatzea eta sustatzea, 1. fasean nahiz 2. fasean.

2- Plana egitean eta ondoren, GERDAU enpresaren jabegoko industria azalera erosteko edo erabiltzeko interesa azal dezaketen enpresek egin ditzaketan proposamen guztiak koordinatzea.

3- Hitzarmena ulertzean, burutzean edo aplikatzean eta har daitezkeen erabakien gainean sor daitezkeen zalantzak eta eztabaidak erabakitzea.

4- Jarraipen Batzordeak egingo dituen bileren aktak jasoko ditu eta, erabakiko den aldizkakotasunarekin, Hitzarmenaren aurrerapena jasoko duen txostena egingo du.

5- Bileretako aktak Legazpiko udaletxean ordezkariak duten talde politikoei bidaliko zaizkie, hitzarmenaren nondik norakoaren berri izan dezaten.

Bosgarrena: Dagozkion kostuekin eta aurreikusitako diru-sarrerekin Jarduketa Plana egin ondoren, GERDAU enpresak 3 hilabete izango ditu erantzun bat emateko. Erantzuna aipatu obrak egitearen eta etorkizunera begira metro industrialak merkaturatzeko prozesuaren aldekoa zein aurkakoa izan daiteke.

Seigarrena: SPRILUR erakundeak, Foru Aldundiak eta Legazpiko Udalak finantziazio egokiena errazteko edo lortzeko beharrezkoak izan daitezkeen gestioak eta proposamenak egiteko konpromisoa hartzen dute. Halaber, aipatu eremua biziberritzeko proiekturako interesgarriak izan daitezkeen erakunde publiko edo pribatu desberdinen zerga salbuespenak edo diru-laguntzak lortzeko konpromisoa hartzen dute.

Zazpigarrena: Hitzarmen honen funtzionaltasuna GERDAU enpresak "Bosgarren" klausulan aipatzen den erabakia hartuko duenean eta horren berri beste alderdi guztiei emango dienean bukatuko da; hala ere, erabaki horren ondorioz, esku-hartzaile berdinen edo desberdinen artean beste akordio eta hitzarmen batzuk egitea eta sinatzea proposatzeko aukera izango da.

Eta adostasuna agertuz, alderdi guztiek dokumentu honen lau ale sinatzen dute hasieran azaldutako lekuan eta egunean.

‘GERDAU ACEROS ESPECIALES EUROPA, SL’ enpresaren izenean,

_____ jn.

SPRILUR erakundearen izenean,

_____ jn.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean,

_____ jn.

Legazpiko Udalaren izenean,

Sagrario Etxabe Lasa and.